



“Lugarrik duen indar handiena langileak dira”

Lugarri 2007ko uztailean lau lagunek sortutako prestakuntza enpresa da. Ermuko Mari Feli Aranburu eta Oskar Morales, Bilboko Inés Santamaría eta Eibarko Silvia Gómez dira langile kooperatibistak. Horiekin batera, Ana Langara eta Asier Gordón langileek dihardute eguneroko lanean. Gaur egun, Ermua eta Mallabiko Lanbide Hastapenerako Ikastegian ari dira prestakuntza ikastaroak ematen, baina edozein talde, erakunde eta enpresari eskaintzen dizkiote bere zerbitzuak.

e|karrizketa

- Noiz sortu zen Lugarri?

Pasa den urtean Ermuko Udalak LHI-ko (Lanbide Hastapenerako Ikastegia) irakasleriaren kudeaketa azpikontratatzearabaki zuen. Hori ikusita, bertan urteetan lanean geunden irakasleok elkartu eta enpresa sortzea erabaki genuen, helburu nagusia zerbitzu horren kudeaketa lortzea zelarik.

- Kooperatiba sortu duzue. Arrazoi berezirik horretarako?

Hasieran ez genekien zein enpresa mota sortu, baina hezkuntzan kooperatiba gehien funtzionatzaren duen eredua izanik, haren aldeko apustua egin genuen. Azken finean, langile guztiak enpresa berean bat egiteko aukera eskaintzen du kooperatibak. Gainera, Lugarri bat egin dugunok, 2-5 urteko esperientzia dugu elkarrekin lan egiten, beraz, gure lan egiteko modua eta lanerako ideiak ezagutzen ditugu.

- Lugarri Formación kooperatiba nortzuk osatzen duzue gaur egunean?

Mari Feli Aranburu, Oskar Morales, Inés Santamaría eta Silvia Gómezek. Lau horiek Lugarriko langile kooperatibistak gara, baina kooperatibistak ez diren beste bi langile ditugu kontratatuta, Ana Langara eta Asier Córdón. Zerbait azpimarratu behar badugu, gure langile-



ria da. Zalantzarik gabe Lugarri duen gauzarik onena, indar handiena langileak dira. Lanean dugun jendea, gure aktiborik onena da, jende aditu eta profesionala baita.

- Zein profileko jendea ari da lanean momentu honetan Lugarri?

Profil oso ezberdineko jendeak osatzen dugu Lugarri eta horregatik alor oso ezberdinen inguruan ematen dugu prestakuntza. Oskar Moralesek Makina Herremintaren arloa lantzen du, Mari Feli Aranburuk eremu

ekonomia eta enpresa zientzetako saila, Inés Santamaría magisteritza eta pedagogia arloa lantzen du eta Silvia Gómezek estetika, ile-apaindegia eta masaje alorra. Beste alde batetik, Ana Langara ere pedagogiaren alorrean dago lanean eta Asier Córdón soldadura arloan ari da prestakuntza ematen.

- Zertarako eta zein helburrarekin sortu da Lugarri?

Lugarri sortu baino lehen, kooperatiba sortu dugun langileok, Bigarren Hezkuntzatik titulu gabe ateratzen diren 16 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzendutako hastapen profesionaleko ikastaroekin ari ginen lanean. Programa horiek helburu bikoitza dute: alde batetik, oinarritzko eza-gupenetan sakontzea, ikasleak ondo molda daitezen bizi-

tzako edozein arlotan. Beste alde batetik, espezialitate profesional edo lanbide-prestakuntzan formazioa ematea. Hala ere, Lugarri ez da lanbide hastapenean oinarritzen soilik, talde ezberdinei (enpresa, gurasoen eskolak, erakunde, kolektibo...) prestakuntza ikastaroak eskaini nahi dituen enpresa moduan sortu da. Prestakuntza hori euskaraz zein gazteleraz eskainiz.

- Zein da zuen harremana LHIK-rekin?

2007an eginiko lehiaketa publikorako proposamena aurkeztu genuen eta hori onartua izan zan. Beraz, hortik aurrera Lugarri Formación enpresa da LHI-ko irakasleriaren kudeaketaz arduratzen dena.

- Zenbat jenderi ematen diozue prestakuntza gaur egun?

“Eskera egiten duenaren beharretara egokiltzen dugu prestakuntza”

ILEAPAINDEGIA
Traskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
 estankoa

 torrekua z/g
 Tel/Faxa. 943 17 07 33
 fax publikoa

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Gaur egun LHI-an ari gara prestakuntza ikastaroak ematen eta bertan 55-60 lagun ari dira.

- Zein da zuen jarduera eremua?

Momentuz eta hasi berriak garenez, Ermua eta Mallabira zabaldu dugu gure jarduera eremua. Gure oinarriak finkatu ahala, inguruko herrietara zabaldu nahi dugu gure jarduera. Dena dela, momentuz gure zereginak ondo egitea eta finkatzea da inportanteena eta etorkizunean izango da denbora gure eremu jarduera gehiago zabaltzeko.

- Lugarrik zer nolako

prestakuntza eskaintzen du?

Eskaera egiten duen talde, instituzio edo kolektiboren beharretara egokitzten den prestakuntza eskaintzen du Lugarrik. Esaterako, LHIK-an prestakuntza emateko programa aurkeztu zuen Ermuko Udalak eta Lugarrik, prestakuntza programa horretara egokitutako eskaintza egin zuen. Beraz, edozein kasutan gure eskaera, egiten diguten eskaintzara egokitzen da. Gure aldetik beharrezkoa ikusten dugu inguruan dauden beharrak zeintzuk diren antzematea eta horiei

"Prestakuntza emateko gai donak lekua du gurean"

erantzuna ematea.

- Enpresa berria izanik, laguntza izan duzue enpresa sortzeko?

Ermuko Udaleko Sustapen eta Enplegu Sailaren bitartez INEM-ek ematen duen I+E (Innovación + Empleo) laguntza jaso dugu eta Ermuko Udalak Izarran lokala merke utzi digu. Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak

kooperatiba berrientzako ematen duen laguntza ere eskatu dugu. Aipatzekoa da ere ELKARLANetik (Kooperatibak Sustatzeko Elkartetik) jasotako laguntza aholkularitza eta kudeaketa arloan

- Epe labur eta ertainera nola ikusten duzue Lugarriren zeregina?

Egia esan, oraindik hasi baino ez gara egin. Alde batetik LHIK-ari eskaintzen diogun zerbitzuak, egunez eguneko lan eta dedikazio gehiena eskatzen du eta horixe izan zen sortu ginean gure lehenengo helburua. Hots, LHIK-ren kudeaketa lotzea. Horrez gain, Lugarriren kudeaketa lanean ere ordu dezente ematen ditugu. Beraz, Lugarri bera kooperatiba moduan finkatu eta prestakuntza zerbitzu berriak eskaintzea litzateke gure asmoa aurreantzean.

-Zuekin harremanetan jartzeko modurik?

Arestian aipatu bezala, Lugarriren indarra langile-rian dago eta langileak behar ditugu. Oso interesgarria litzateke, bere burua prestakuntza emateko gai ikusten duen edonor gurekin harremanetan jartzea eta bere kurrikuluma honako helbide honetara bidaltzea: info@lugarriformacion.com.

Alazne Aiestaran



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

DROGETENITTURRI
EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50

Elexoste

